



GORA TELOIA! ANTZERKI GIDA. Ikastetxeetan, gaztetxetan eta neska mutilen arteantzerkia egiteko gida



Ikastetxeetan antzerkia lantzeko, egiteko eta partekatzeko tresna.

10.Jul - 11.Jul 2023

Cod. H12-23

Mod.:

Streaming Face-to-face

Edition

2023

Activity type

Summer course

Date

10.Jul - 11.Jul 2023

Location

Miramar Palace

Languages

Basque

Academic Validity

20 hours

Organising Committee

Fundación
BBVA



Description

Ikastaro honen bidez **Gora Teloia! Antzerki gida** partekatu nahi dugu, ikastetxeetan edo neska mutilekin lanean ari diren irakasle edo monitoreei antzerkia erabiltzeko tresnak eskaini nahi dizkiegu, antzerkia modu baikor eta baliogarrian egin ahal dezaten.

Sorkuntza geroz eta garrantzitsuagoa den garai hauetan, antzerki eta hezkuntza alorrean eskarmentua dutenen eskutik haien esperientziak partekatu nahi ditugu oso modu praktikoan.

Besteak beste, honako gai hauek izango ditugu gogoan:

- Antzerkiaren garrantzia gorputzaren, ahozketasunaren eta emozioen adierazpena garatuz
- Antzerkiaren garrantzia hizkuntza lantzerakoan, sorkuntzan, baloreen lanketan, inklusioan, elkar-lanean,...
- Literatura dramatikoaren genero literarioa da. Irakurketa sustatzea
- Nola prestatu urte osoko lana: nondik hasi eta nola iritsi jarri den helbururaino, bidean galdu gabe.
- Nola landu antzerki mota ezberdinak: zirkoa, pailazoa, mimoa, testu antzerkia, esketxak, txotxongiloak...
- Antzerkia jende aurrean egitearen garrantzia. Baloreen jarri antzerkiaren garrantzia: pertsonala, kideen artekoa eta soziala
- Sormena garatzeko tresnak eskaini. Irudimena landu.
- Talde lana egiteko, inklusiorako, baloreak lantzeko, gatazkak bideratzeko... antzerkiaren inguruko tresnak nola erabili
- Antzerkiaren inguruko lanbideak: dekoratua, jantziak, argiztapena, ekoizpena, musika, zuzendaritza, etab. Garrantzia eman eta landu

Ariketak eta **jolasez** gain, antzezlan bat *zutik* jartzen laguntzeko tresnak eskainiko ditugu eta hori egin ahal izateko urratsak landuko dira.

Eta antzerkia gutxiesten duten topikoak hautsi!

Objectives

Antzerkiaren bidez sorkuntza garatzea.

Antzerkia adierazbide gisa lantzeko: gorputza, ahotsa, hizkuntza, harremanak, emozioak... landuz.

Antzerkia haur eta gazteen artean indartzeko, ikastetxeetan antzerkia sendotzeko eta kurrikulumean txertatzeko, horren sustatzaile izango diren irakasle edo monitoreei tresnak eskaintzea da ikastaro honen helburu nagusia.

Antzerkiari beldurra galtzea, eskaini ditzakeen aukerak ezagutaraztea, eta era berean, antzerkia oso "kontu serioa" dela jabetzea.

Materialak, ariketak, jolasak, etab. partekatu eta material horiek errealitate edo behar bakoitzera egokitze baliabideak eskaini nahi ditugu.

In collaboration with



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Program

10-07-2023

08:50 - 09:00	Presentation by the Director of the activity Erakunde eta antolatzaileen ongietorria Aizpea Goenaga Mendiola Aktore, zuzendari eta antzerki idazlea
09:00 - 10:30	“GORA TELOIA! Antzerkia eskoletan egiteko tresnak” Aizpea Goenaga Mendiola GORA TELOIA! Antzerki gidaren egilea
10:30 - 12:00	“GORA TELOIA! Antzerkia egiteko ariketak eta jolasak” Ariketa eta jolasak. Tailerrean espazio huts bat leku dramatikoa bihurtzen ikasiko dugu. Leku dramatiko desberdinak bilakatuko ditugu gainera, non fantasia jolas honen oinarri izango den. Anartz Zuazua Alvarez Haur eta gazte antzerki aditua
12:00 - 12:30	Break
12:30 - 14:30	“GORA TELOIA! Antzerkia egiteko ariketak eta jolasak” Ariketa eta jolasak. Ikastaro osoan zehar antzerkia garatzeko eta antolatzeko tresnak Alaitz Olaizola Borda Idazlea

11-07-2023

09:00 - 10:30	“GORA TELOIA! Antzerkia egiteko ariketak eta jolasak” Ikastetxe eta irakasle bakoitzaren errealitatetik abiatuz Aizpea Goenaga Mendiola Aktore, zuzendari eta antzerki idazlea
10:30 - 12:00	“GORA TELOIA! Zirkoa ezagutu eta egiteko tresnak” GURE ZIRKOA IKASTETXEETAN! Iker Galarza Larrinaga Aktore, gidoilari eta Gure Zirkoaren sortzailea
12:00 - 12:30	Break
12:30 - 14:30	“GORA TELOIA! Antzerkia eta clown-a euskaraz ere egiteko tresnak” Clown ariketa eta jolasak Virginia Imaz Quijera Clown, antzezle eta zuzendari

Directed by



Aizpea Goenaga Mendiola

Aktorea zuzendari eta antzerki idazlea

Aizpea Goenaga (San Sebastián, 1959). Es diplomada en Magisterio y Artes Escénicas y tiene estudios de interpretación, dirección y dramaturgia. También ha cursado el máster en Estudios Avanzados de Teatro. Desde 1978 ha trabajado en numerosas películas y en televisión como actriz, guionista o directora. También ha publicado y dirigido obras de teatro como 'Zu (T) gabe', 'Santxa', "Ezker-Eskuma" y 'La pecera'. También ha lanzado obras de teatro para niños y jóvenes. Ha ganado premios como el Premio Serantes, el Premio de Teatro de la Ciudad de San Sebastián y el Premio Toribio Alzaga de Euskaltzaindia. En 2005 adaptó y dirigió 'Zeru Horiek' de Atxaga y en 2009 el largometraje 'Sukalde Kontuak-Secretos de cocina'. De 2010 a 2016 fue director del Instituto Vasco Etxepare. En 2017 retoma la elaboración de guiones y textos y la dirección.

Teachers



Iker Galarza Larrinaga



Virginia Imaz Quijera

Oihulari Klown, Directora artística

Clown irakaslea eta ipuin kontalaria. Oihulari Klown antzerki taldearen sortzailea eta 2017ko Berdintasunerako Emakunde Saria. Maskara antzerkian sakondu du 40 profesional baino gehiagorekin, bereziki JBrekin. Bonange, Anne-Marie Bernard eta Bertil Sylvander Bataclownekoak dira maisu nagusiak. Komikotasuna bilatzeko tailerrak eman ditu 12.000 orduz baino gehiagoz. 38 ikuskizun zuzendu eta maskara antzerkian aholkatu ditu 15 antzerki konpainiatan. 1998ko ekainetik 2000ko abendura arte Kanada eta Estatu Batuetako Circo del Soleko La Nouba ikuskizunean parte hartu zuen pertsonaia komiko bezala.



Alaitz Olaizola Borda

https://eu.wikipedia.org/wiki/Alaitz_Olaizola Haur zela hasi zen antzerkia egiten, ondoren Antxieta antzerki tandem aritu zen, eta baita Lakrikun antzerki taldean ere. Helduentzat eta gazteentzat antzerki-tailer ugari eskaini ditu. Orain Azpeitiko Emakumeen Antzerki Tailerra zuzentzen du. 2001ean Toribio Altzaga Saria irabazi zuen, Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin, eta 2006an berriz ere, sari hori irabazi zuen Joanes: itxaropenaren semea lanekin. 2004an, Donostia Hiria saria Clitemnestraren itzulera antzerki lanarekin. Telebistan gidoilari lanetan aritzeaz gain, helduentzat eta haurrentzat antzerki ugari idatzi, taularatu eta argitaratu ditu.



Anartz Zuazua Alvarez

Antzertin, Madrilgo W.Layton antzerki laborategian eta Pariseko J. Lecoq antzerki eskolan burutu zituen ikasketak. Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan burutu zituen. Klarinetea eta pianoa dira jotzen dakizkien instrumentuak. Zinema eta bideo ikasketak Andoaingo zinema eskolan burutu zituen. Orduetik zuzendari eta aktore bezala lan egin du antzerkian, telebistan eta zinean. Zurriola Antzerki Eskolaren sortzaileetarikoa izan zen eta bertan zazpi urte eman zituen irakasle. Orain zenbait ikastetxetan dabil antzerkia irakasten. 2012. urtean Borobil Teatroa sortu zuen. 2020. urtean Borobil Teatroa Estudioa zabaltu du, bere lanen sormen espazioa eta antzerki ikasketak eskaintzen diren lekua.

Registration fees

FACE-TO-FACE	UNTIL 31-05-2023	UNTIL 10-07-2023
young fee	25,00 EUR	59,00 EUR
General	-	84,00 EUR
Reduced fee regular	-	71,00 EUR
Registration exemptions	-	59,00 EUR
Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Learn to Teach - Basque Government	-	71,00 EUR
Learn to Teach - Navarre Government	-	71,00 EUR
INVITADOS	-	0 EUR
LIVE ONLINE	UNTIL 31-05-2023	UNTIL 10-07-2023
young fee	25,00 EUR	59,00 EUR
General	-	84,00 EUR
Reduced fee regular	-	71,00 EUR
Registration exemptions	-	59,00 EUR
Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Learn to Teach - Basque Government	-	71,00 EUR
Learn to Teach - Navarre Government	-	71,00 EUR
INVITADOS	-	0 EUR

Place

Miramar Palace

Pº de Miraconcha nº 48. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa